


ERABILERAREN ONTZIA BETE

Haur Hezkuntzan
IKASLEEN EUSKARAREN ERABILERAN
ERAGITEKO OINARRIZKO PROPOSAMENA



ebete hizkuntza-zerbitzuak
2017-2018 ikasturtea
www.ebete.eus

Erabileraren ontzia bete. 2017-2018 ikasturtea.

Dokumentu honetan Haur Hezkuntzako irakasleei begirako oinarrizko proposamenak bildu ditugu: ikasleen euskararen erabileran eragin nahi badugu zer hartu kontuan? Zein izan daitezke gutxieneko helburu egokiak? Nola jokatu behar genuke irakasleok?

Dokumentu honen osagarri tresna zehatzak proposatzen diren beste bat prestatu da:

- Hizkuntza jolasak Haur Hezkuntzan.

Dokumentu hauek 2107-2018 ikasturtera begira eguneratu dira. Ikasturte honetan ebeteko lantaldea osatzen dugun kideen arteko lana izan da: Itziar Larzabal Bengoetxea, Arrate Gisasola Izeta, Lexuri Sanz Ramon eta Iñaki Eizmendi Arsuaga.

Proposamen hauek osatu eta garatzen ditugun neurrian, dokumentuak ere eguneratuko ditugu.

Aurkibidea

1.- Abiapuntua	3
2.- Hizkuntza helburuak HHn	5
3.- Hezitzaile berritsuak	8
4.- HHRako tresna baliagarriak	11
5.- Jarraipena eta ebaluazioa.	15

1.- Abiapuntua

Hizkuntza bat ezagutzeko (gaitasun komunikatiboak garatzeko), haurrek hizkuntza hori erabili egin behar dute: erabilera berak emango die gaitasuna eta gehiago erabiltzeko motibazioa. Eskolaren zeregin nagusia ez da hizkuntza baten erabilera lantzea, gaitasun komunikatiboak garatzen laguntzea baizik. Baina erabilerarik gabe ezin gaitasun horiek garatu.

Euskaraz ikasten duten haur askoren kasuan eskolatik kanpo euskararekin harreman gutxi dute: hainbaten ama hizkuntza ez da euskara eta kalean ere ez dute euskarazko harremanik (edo oso gutxi dituzte). Ondorioz, irakasleek zailtasun batekin egiten dute topo:

- Gaitasun komunikatiboak garatzeko hizkuntza erabili behar da.
- Hizkuntza erabiltzen hasteko gutxieneko ezagutza bat behar da (hizkuntza hori entzun, barneratu, erabiltzen hasi ...).
- Eskolaren helburua gaitasun komunikatiboak garatzea da nagusiki, baina horretarako erabilera ere eskaini behar dute. Hau da: biak batera landu behar dira. Bi arlo hauek oso lotuta doaz: ezin dut erabili ez badut gutxieneko gaitasunik, baina ez dut gutxieneko gaitasunik izango ez badut erabiltzen.

Dokumentu horretan ideia hori hartzen da abiapuntu moduan eta hainbat proposamen egiten dira. Helburu xumeak dituzten proposamenak dira: abiapuntu moduan hartuz gaur egun irakasleek gauza asko eta oso ondo egiten dituztela, zenbait oinarri eta ideia proposatzen dira norberak bere lanean erabiltzeko baliagarri izan daitezkeen tresnak aurki ditzakeelakoan. Ikasleen euskararen erabileran eragin nahi izanez gero, ondorengo oinarri hauek kontuan izatea proposatzen dizuegu:

- Laguntzea
- Zertan ari garen jakitea
- Gustura aritzea

Laguntzea. Helburua gurea da: irakasleona eta eskola komunitatearena. Alegia, irakasleok gara ikasleek euskara gehiago erabiltzea nahi dugunak. Beraz, lagundu egin behar diegu. Hainbat ikaslek erraztasun handiagoa dute gaztelaniaz aritzeko (gehien erabiltzen duten hizkuntza delako) eta guk lagundu egin nahi diegu euskara asko, askorekin eta egoera askotan erabili dezaten. Are gehiago, ulertzen dugu beraien artean gaztelaniara jotzea ohikoa

dela bizi garen testuinguruak horretara eramaten dituelako eta, gainera, eskolaz kanpo beraien arteko harremana gaztelaniaz bada hainbat ikasleei elkarri euskaraz aritzea arrotz egitera ere iristen da. Beraz, ez diegu errurik botako ez badute euskaraz egiten guk nahi genukeen hainbat egoeretan, baina ahalegina eskatuko diegu eta gure laguntzaz euskara gehiago erabiltzea lortzen dugunean errefortzu positiboak emango dizkiegu (animatu, zoriondu...).

Zertan ari garen jakitea. Argi eduki behar dugu zein den norabidea, zein diren helburu zehatzak eta zer egingo dugun helburu horietara iristeko.

- Norabidea: Ikasleek euskara asko, askorekin eta egoera askotan erabiltzea nahi dugu. Bai eskolan, baita eskolaz kanpo ere. Hori gustatuko litzaiguke.
- Gutxieneko helburua: Gaur egun gure ikasleen errealitatea abiapuntu moduan hartuta, hurrengo hilabeteetarako helburu lorgarri bat jartzea. Helburu zehatza izan behar du, neurgarria. Agian nahiko genukeen helburutik urrun egongo da baina gure taldeei egokitutako helburua izango da. Izan errealistak.
- Prozedura zehaztea: Zer egingo dugu helburu horretara iristeko? Zeintzuk izango dira erabiliko ditugun estrategiak eta nola erabiliko ditugu? Ikastetxearen eta irakasleon ezaugarrietara eta baliabideetara egokitu behar ditugu estrategiak, baita haurren adinera ere eta horrek baldintzatuko ditu helburuetara iristeko epeak eta helburu handiak edo oso xumeak jarri ahal izatea.

Gustura aritzea. Argi badugu euskara gehiago erabiltzen lagundu nahi diegula eta, argi badugu, horretarako zer egiten ari garen, lan hori egiten gustura aritu gaitezke. Helburuak handiagoak edo xumeagoak, baliabide askorekin edo gutxirekin, 2/3 urtekoekin edo 5/6koekin, baina gustura aritu ahal izango gara. Aldiz, helburuak argi ez edukitzeak eta zer egingo dugun ondo ez zehazteak, etsipenetik lan egitea dakar: inoiz ez gara helburura iristen (ezta hurbildu ere), gure ahaleginak ezertarako balio ez duela dirudi eta, gainera, ikasleei botatzen diegu errua.

2.- Hizkuntza helburuak HHn

Bi helburu zehaztea proposatzen dugu:

- Ikasleek HH bukatzen dutenerako gutxieneko helburua
- Ikasgeletarako helburua

Ikasleek HH bukatzen dutenerako gutxieneko helburua

Irakasle guztiok buruan izan behar genukeen helburua da eta, aukera ikusiz gero, baita eskolako gainontzeko langile eta eragileek ere (jantokiko hezitzaileek, autobusetako begiraleek eta abar).

Eskolaren ezaugarriak eta testuinguru soziolinguistikoa kontuan hartuta, gutxiengutxienez lortu nahiko litzatekeena zehaztea eta horri begirako prozedura adostea proposatzen dizuegu. Irakasle -eta langile- guztiok eskolako eremu osoan erabiliko duguna, gurekin dabilzan ikasleak diren eta eskolako zein eremutan gauden kontuan hartu gabe.

Ikasgeletarako helburua

Hainbat kasutan HH amaierako gutxieneko helburua eta ikasgelarako helburua berbera izango dira. Baina beste hainbat kasutan hori ez da horrela izango, batez ere, haurren adina kontuan hartzen bada: 2/3 urteko haurrek askotan zer esaten diguten ulertzeko nahiko lan izaten dugu.

Ikasgeletarako helburuak adostea eta horiek lantzeko prozedura argi izatea proposatzen dizuegu. Adin tarteka edo zikloka egitea egokia izan daiteke irakasle on artean prozedurak adosteko, baina egokiena ikastetxeko funtzionamendura hobetoen egokitzen den modua topatzea litzateke (adin taldeka funtzionatuz gero hala egin edo, errazagoa bazaizue, jo norberak bere gelarako helburua zehaztera).

Helburuak zehazteko modua

HHko irakasleen kasuan eta, batez ere, txikitxoenen ikasgeletan oso helburu xumeekin jokatu dugu. Hala, lehenik eta behin taldekideak behatuko ditugu eta euren hizkuntza gaitasun/erabileraren arabera, oinarri-oinarrizko helburuak bermatzera joko dugu. Besteak beste:

- Haurrak euskara entzuten eta ezagutzen hastea irakasleen bidez: abestuz, ipuinak entzunez, hizkuntza errutinen bidez....
- Oinarrizko hiztegia barneratzen hastea
- Hizkuntza progresioak garatzen joatea: *“Ura nahi duzu? Bai” “ Zer nahi duzu? Ura” “Zer nahi duzu? Ura nahi dut!”*
- Eta abar

Behin oinarrizko helburu horiek lortu ondoren, testuinguru soziolinguistikoak izugarritzko eragina izango du honetan, bestelako helburuak zehaztu ahal izateko, ondorengo galdera hauek erantzutea proposatzen dizuegu:

- Euskaraz erantzuten al diete ikasleek irakasleei? Guztiek eta beti?
- Euskaraz zuzentzen al dira irakasleengana? Guztiak eta beti?
- Nola egiten dute ikasleen artean irakaslea beraiekin elkarrizketan ari denean?
- Nola egiten dute ikasleen artean irakaslea beraien elkarrizketatik kanpo dagoenean?

Horren arabera, helburuak zehaztu ahal izango ditugu:

- Irakasleoi euskaraz erantzutea edota irakasleengana euskaraz zuzentzea. Hau da: irakasleekin harremana euskaraz izatea.
- Ikasleen artean euskaraz egitea irakaslea elkarrizketen parte denean.
- Ikasleek euskara mantentzea irakaslea elkarrizketatik kanpo dagoenean ere.

Horiez gain, kontuan hartu:

- Helburu bat baino gehiago izan ditzakegu baina hobe da bakarra edo gehienez ere bi hartzea. Izan ere, helburuak prozedura eta estrategiekin lotu behar dira eta helburu asko izateak guztia zailtzen du.
- Helburuak gune edo egoerekin lotu daitezke: ikastetxeko eremu osorako edo ikasgelarako izan daitezke, goizetako borobilerako edo txoko zehatzetan ari direnean lortzeko, denbora tarteak zehaztu daitezke, eta abar.

Zein izango da HH amaitzen dutenerako gutxieneko helburua?
Zeintzuk izango dira ikasgeletara begirako helburuak?

3.– Hezitzaile berritsuak

Euskararen erabilera lantzera begira hizkuntza behin eta berriro erabili eta ikasleekin elkarrizketa asko sortzen edota bideratzen dituen irakaslea. Askotan 2/3 urteko haurrekin zaila da elkarrizketak bideratzea, baina kasu horietan hizkuntza ereduak izango gara.

Oinarrizko estrategia da eta erdigunean irakaslearen jarrera dago: zer eta nola egiten duen euskara asko erabiltzeko jardunean zehar eta nola jokatzeko duen elkarrizketa asko sortzeko eta bideratzeko. Haur Hezkuntzan, oro har, horrela jokatzeko dute irakasleek. Lan egiteko modu hori dinamikaren parte ere bada.

HH amaitzen dutenerako gutxieneko helburu bat aukeratu badugu, helburu horri begira nola jokatu adostu beharko genuke.

Irakasle on artean irakurri ondorengo proposamena eta erantzun galdera hauei:

Egokia al da? Zer osatu edo moldatu beharko genuke? Guztiok eta aldi berean horrela jokatzeko lagunduko al luke gutxieneko helburu horretara iristen?

Eta, batez ere:

**PREST AL GAUDE IRAKASLE GUZTIOK ETA MODU KONTZIENTE
BATEAN HORRELA JOKATZEKO?**

Gure jarrera argia izango da: **Irakasle berritsu gisa** jokatu dugu eta jokabide horren baitan:

- Txiki txikienean kasuan: asko hitz egin, ereduak eman, abestu, galderak egin eta geronek erantzun, errutina linguistikoak behin eta berriro erabili, esaten duguna antzeztu, mimikaz lagundu...

- 4/5 urtekoekin: aurrekoaz gain, elkarrizketatxoak sortzen eta bideratzen hasi, gure kokalekua baliatu (zentro, parte, kanpo), hizkuntza progresioak zabaldu, galdera itxiekin eta irekiekin jokatu, simulazioak baliatu, hizkuntzarekin jolastu...
- Euskaraz egitea kostatzen bazaie batzuetan ahalegina eskatu, laguntza eskaini eta, egiten dutela ikusiz gero, errefortzu positiboak eman (*ze ongi aritu zaren! A ze poza! Eman bostekoa, txapeldun!*)

Ikasgeletarako helburuei begira prozedura zehaztea ere garrantzitsua da eta ikasleei euskara gehiago erabiltzen nola lagunduko diegun argi izatea.

Irakasleon artean irakurri ondorengo proposamena eta erantzun galdera hauei:

Zein izango da gure taldeetarako helburu lorgarri eta egokia? Argi ulertzen al da irakasleok nola jokatu beharko genukeen? Prest al gaude horrela aritzeko?

Eta, batez ere:

PREST AL GAUDE GELETAN, TXOKO EZBERDINETAN AHOZKOARI LEKUA EGIN, JARDUERAK EGOKITU ETA PROZEDURA HAU MODU KONTZIENTEAN ERABILTZEKO?

Jarduerak egokitzea eta ahozkoari lekua egitea

Irakasle berritsu izateaz gain...

- Egunean zehar hurrekin jarduten dugun txoko edo une bat (hasierako borobila, ipuin kontaketa, makinistaren tarte, eraikuntza txokoa, jolas sinbolikoaren txokoa, marrazketa txokoa...) ahozkoa lantzeko erabiliko dugu jarduerak moldatuz edo hizkuntza jolasak baliatuz. Intentsitate handiagoa emateko aukera bagenu, askoz hobe.
- Tarte horretan argi izan behar dugu ahozko jardunak duela lehentasuna eta dinamika euskaraz izatea bermatu nahi dugula.

Prozedura erabiltzea

- Txoko edo une bat aukeratu eta talde osoarekin edo taldetxo jakin batekin jardungo dugun erabaki.
- Txoko edo une horretan baliatuko dugun hizkuntza jolasa aukeratu/moldatu.
- Zenbaitetan, egoera egokia dela ikusiz gero, hurrei euskara erabiltzea nahi dugula jakinarazi
- Hizkuntza jolasa abian jartzen dugun bitartean izan bereziki irakasle berritsuak: hizkuntza errutinak erabiltzen lagundu, ereduak eskaini, galdera itxiekin jokatu....
- Kontuan hartzekoak:
 - o Talde txikian txoko jakin batean hizkuntza jolas bat abian jarri behar badugu, babestu jarduera hori. Hizkuntza jolasa abian jartzekotan, irakasle berritsu gisa aritzeko denbora hartu behar dugu eta, beraz, ongi pentsatu inguruko txokoetan zer eskatuko diegun gainontzeko ikasleei. Adibidez, ondoko txoko batean fitxa zail bat bete behar badute eta uneoro laguntza eskatzen ari bazaizkit, nekez babestu ahal izango dut hizkuntza jolasa eta, hala, hizkuntza baliabide bat ezerezean uzten ariko gara.
 - o Garrantzitsua da gelan euskararekin zailtasun handien duten haurrak identifikatuak edukitzea, bereziki haiekin izan beharko baitugu irakasle berritsu.
 - o Mihiaz gain, gorputz bat ere badaukagu: euskaraz esaten duguna ulertzeko zailtasunak dauzkaten haurren kasuan, maiz aski da esaten dugun hori keinu batez laguntzea hurrek behar bezala ulertzeko.
 - o Haur batentzat ez dago irakaslearen onespina bezalako oparirik, euskaraz aritu direla entzunez gero, eman errefortzu positiboak! Oso erreza da baina sarri ahortzi egiten zaigu.

4.- HHrako tresna baliagarriak

Hezitzaile berritsu izateak oso erraza badirudi ere, zenbaitetan uste baino esfortzu handiagoa eskatzen du. Uneoro elkarrizketak sortzen eta bideratzen aritzea lan gordina izan liteke. Hala, jarraian hezitzaile berritsu izate horren baitango beste hainbat tresna aurkezten dira, ez modu berritzailean, izan ere HHko irakasle gehien-gehienek erabiltzen baitituzue, baina bai konsziente egin eta zenbaitetan indar handiagoa emateko asmoz.

Hona zenbait tresna baliagarri:

Banakoekin elkarrizketak eragiterakoan

- **Guk esandakoa errepikarazi:** hainbatetan eredia eman eta errepikaraziko diegu. Modu horretan, eredia jaso eta erabiltzen baitute. Askotan eredia behin baino gehiagotan eman beharko diegu baina une batetik aurrera galdera ere bihur dezakegu eta beraiei eskatu lehendik erabilia duten hori esateko.
- **Galdera erduekin jokatu::** Banakoekin elkarrizketak sortzen ditugunean baloratu beharko dugu zein euskara maila duten, eta hortik abiatuz zein galdera eredu erabiltzea komeni zaigun. Guztiak nahastuz ere jokatu dezakegu:
 - **Galdera itxia.** *Ondo pasa duzu? Bai /ez.*
 - **Galdera itxia aukerak emanez.** *Zer nahiago duzu mendia edo hondartza? Mendia edo hondartza.*
 - **Galdera itxia baina erantzun luzea eskatuz.** *Arratsaldean etxean geldituko zara edo kalera aterako zara?*
 - **Galdera irekiak erduekin lagunduz.** *Kalera ateratzen bazara non ibiliko zara? Badakit parkean ibiltzea asko gustatzen zaizula. Baina beste gauza batzuk ere egiten dituzu. Gaur kalera ateratzen bazara non ibiliko zara? (hitz bakarreko erantzuna ematen badu, esaldia osatzeko eskatu eta lagundu: Parkean. Gaur arratsaldean parkean ibiliko zara? Ba esan: gaur arratsaldean parkean ibiliko naiz).*
 - **Galdera irekiak.** Erantzunari jarraituz, informazioa zabaldu. *Kalera ateratzen bazara non ibiliko zara?... Eta ondoren zer egingo duzu?...*

Beraien arteko elkarrizketak eragiterakoan

Banakoekin elkarrizketak sortu eta lantzeaz gain, beraien arteko elkarrizketak ere bideratu nahi ditugu: elkarrekin euskaraz egiteko gaitasuna eta ohitura izatea nahi badugu (gutxienez elkarri euskaraz egitea arraroa ez izatea), guk lagundu beharko diegu. Testuinguruan gaztelania nagusi den ikastetxeen kasuan, ideia hau oso argi izan beharko dugu: edo guk laguntzen diegu edo ez dute egingo.

Sarri gure eraginez soilik izango da lorgarria beraien artean euskaraz egitea: elkarrizketa bideratu eta baliabideak eskaintzeko gu tartean gaudelako. Hala, elkarrizketetan hartuko dugun kokalekua erabat estrategikoa izango da:

- **Irakaslea zentro** (elkarrizketa erabat bideratuak): galdera nahiko itxikien eta bata besteari zerbait esatera bideratuz. Etengabe ereduak eman beharko dizkiegu baina lortu behar dugu beraien arteko elkarrizketa izatea. Eredua eskaini eta errepikaraztearekin jokatu dugu. Elkarrizketa oso artifizialak izan ohi dira baina, gaitasunik ez badaukate, hortik abiatu beharko dugu.
- **Irakaslea elkarrizketaren parte** (elkarrizketa nahiko bideratuak): adi egongo gara eta baliabideak falta zaizkienean tartean sartuko gara laguntzeko. Batzuetan ez da beharrezkoa guk errepikatu araztea. Nahikoa da galderak eginez elkarrizketak bideratzea edo ereduak eskainiz beraiei bide ematea. Hau ere oinarrizko estrategia da. Gutxieneko gaitasuna duten ikasleekin asko erabiltzekoa.
- **Irakaslea kanpo** (elkarrizketa naturalak): gure presentziarekin lagunduko diegu euskara mantentzen. Gaitasuna izan badute baina hala ere erraztasun handiagoa dute askok gaztelaniaz. Gaztelaniaz ari direla entzutean, zeri buruz ari diren identifikatu eta elkarrizketara sartu euskarara ekartzeko.

Horiez gain, erabat baliagarri izango zaizkigu:

- **Hizkuntza errutinak:** egunean zehar sarri oharkabeen behin eta berriro erabiltzen ditugun esamoldeak. Oso tresna erabilgarriak dira ikasleek euskara erabiltzeko baina ez soilik irakasleari edo taldeari orokorrean hitz egiteko, beraien arteko elkarrizketak bideratzeko ere balio dute. Edozein egoera eta dinamiketan txertatu daitezke errutina linguistikoak: saio bat hasteko, dinamika edo jolas batean erabili beharreko esaldi eta abestitxoak, txanda eskatzeko...

- **Simulazioak:** eguneroko bizitzarako behar dituzten esamoldeak lantzeko eta, nolabait, entrenatzeko tresna apartak dira. Eredu bat aurkeztuko diegu eta elkarrekin erabili behar dute. Eredu horrek benetako egoera bat simulatuko du, alegia, benetan erabili beharreko antzeko egoera bat proposatuko du baina ez da benetako egoera bat eta horrek zenbait ondorio eta aukera ditu:
 - Simulazioan erabiltzeak ez du esan nahi benetako egoeran erabiliko dutenik, antzeko egoerak dira baina ez berdinak.
 - Baina simulatu dutenez ereduak jaso eta erabili dute. Benetako egoera batean erabiltzea errazagoa izango da, bereziki gure laguntza badute.
 - Simulazioa jolas bat da eta, horrek, tonuarekin jolasteko, exageratzeko eta hainbatetan errepikatzeko aukera ematen digu.

Hizkuntza jolasak HH dokumentuak simulazio eredu ezberdinak aurki ditzakezue.

- **Antzerkiak:** Esketxak eta antzerkiak tresna erabilgarriak dira beraien arteko elkarrizketak euskarara bideratzeko. Hasteko, prestatu egin behar badute, prestatzerakoan euskara erabiltzea ezinbestekoa da elkarrizketak sortzerakoan, entsaiatzerakoan... Bestetik, antzezterakoan elkarrizketak egongo dira: antzerkiak berak dituen elkarrizketak. Elkarrizketa erabat bideratua dira (gidoiak zehazten ditu) baina beraien artekoak dira. Haurren hizkuntza-gaitasunaren arabera, bide bat edo beste lehenetsi dezakegu: antzerkiak beraiek prestatzea edo guk eginda ematea eta beraiek guk proposatutakoa errepikatzea. Tarteko egoerak ere hainbat izan daitezke.

- **Irratsaioak/grabazioak:** Aurreko tresnetan ez bezala kasu honetan gutxieneko azpiegitura bat behar da (irradi ekipoa edota ordenagailuak), baina tresna lagungarriak dira euskararen erabilera lantzeko eta hainbat ikastetxeetan asko erabiltzen dira. Ikasleekin irradi saioak grabatzea da bat: grabazioa euskaraz da baina prestaketan ere erabili behar dute (irakaslearen laguntzaz bada ere). Era berean, baina sinpleagoa, grabazioak egitea izan daiteke. Adibidez:
 - Argazki edo marrazki batzuk erakustea power pointean, deskripzioak lantzea beraiekin batera, eta gero hori grabatzea. Ondoren, guztiok entzun dezakegu eta eskolako webgunean ere jar daiteke.
 - Lotura bat duten zenbait marrazki erakustea, denon artean ipuin bat asmatzea eta hori grabatzea.

Irudimen pixka batekin, hainbat ideia eta aukera bururatuko zaizkigu honen inguruan eta gaur egun oso erraz erabili daitezkeen tresnak dira.

- **Hizkuntza jolasak:** jolastu ahal izateko hizkuntza bera oinarri duten jolas eta dinamikak dira. Haurrentzako jolas erakargarriak izan ohi dira eta jolastu nahi dutenez, hizkuntza ia oharkabean erabiltzen dute erabat modu ludikoan. Horrez gain, jolas mota hau hurren gaitasunera oso errez moldatu liteke eta eskatzen zaiena euren gaitasunarekin bat etortzen denez, ez die hainbesteko esfortzurik eskatzen.

HHko hizkuntza jolasak txostenean txoko ezberdinetara egokitutako hainbat adibide eta proposamen aurkituko dituzue, simulazio ereduak batera.

Eta nola ez: **EUSKARAZ BLAITZEA**

- **Musika**
- **Abestea:** irakasleak abestuz gero, hurrek ere egingo dute eta kanta ezberdinak ikasiko.
- **Hizkuntza paisaia**
- **Ipuin kontaketak**
- **Marrazki bizidunak eta ipuinak entzutea:** bide pasiboak izanik, ereduak eskaintzea eta euskaraz blaitzea ahalbidetzen dute.
- ...

5.– Jarraipena eta ebaluazioa.

Erabilera helburuak eta prozedura zehaztu badira, garrantzitsua da gaiari jarraipena egitea. Adibidez:

- Gutxieneko helburuari eta oinarrizko prozedurari dagokionez: hiruhilean behin behintzat klaustroan horri buruz hitz egitea eta prozedurak gogoraraztea.
- Mailaka ikasgeletara begirako helburuak eta prozedurak gogoraraztea gutxienez hiruhilean behin.

Modu honetako galderak erantzutea lagungarria izan daiteke tarte horietan:

- Irakasle guztiok erabili al dugu gutxieneko prozedura? Ikastetxeko eremu osoan? Prozedura argi izan dugu eta modu kontzientean erabili dugu? Erraz erabiltzen dugu? Lortu al dugu gutxieneko helburu horretara hurbiltzea? Zeintzuk dira muga eta zailtasunak?
- Zein izan dira ikasgeletarako helburuak? Prozedura argi izan dugu? Egokitu ditugu jarduerak ahozkotasanari lekua egin eta prozedurak erabiltzera begira? Modu kontzientean izan gara hezitzaile berritsu? Adostu moduan egin dugu? Zeintzuk dira mugak edo zailtasunak? Lortzen al dugu helburu horietara hurbiltzea? Zein izango da hurrengo hiruhilerako helburua? Mantenduko dugu edo aldatuko dugu? Zein izango da prozedura?